

Proiektuaren hasieran nahiko zaila izan zen gure kostu guztiak kontrolatzea, ez genekien zehazki gure kostuak nolakoak eta zenbatekoak izango ziren eta arazoak izan genituen diruarekin inbertsio egokiak egitea.

Gure proiektuan hainbat motako gastu ezberdinak ditugu, esaterako kostu aldakorra eta kostu finkoa. Kostu aldakorraren ikus puntutik Ekobizi enpresan kostu aldakor mordoa ditugu, lehenik eta behin, proiektua aurrera eramateko hainbat material erosi behar ditugu eta hori izango da gure kostu aldakorra, izan ere, materialen prezioak aldatzeko aukera dago eta ez dago gure esku materialen prezioa. Modu berean, biltzen ditugun plastiko zati bakoitzarekin arropa sortuko dugu, hortaz arropa sortzeko materiala kostu aldakorretako bat izango da; izan ere, hilabetero ez du prezio berdina izango.

Bestalde, kostu finkoari behatuz, proiektua gauzatu ahal izateko lokal propio bat edo lantegi bat behar dugu. Lokala erostearen kostua kostu finkoa izango da, izan ere, behin lokala erosita, gurea izango da. Aldi berean, gure webgunea aurrera eramateko beharrezkoak diren material informatikoak ezagun batek utzitakoak dira eta egoera egokian daudenez, ez dira inolako kosturik izan guretzat.

Gizarteari begira ez ditugu inongo kosturik sortzen, izan ere, ez dugu inongo gizarte taldetik alde batera uzten gainera, ingurumen-kostuak aztertuz, gure enpresak onurak bakarrik ekartzen dituzte gure ingurumenean.